

Donostia, 2016ko azaroaren 18a

IDAZKARI NAGUSIARI

APARKALEKUETAKO IRISGARRITASUNARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandro jaunak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikularen babesean, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, urriko GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) aparkalekuetako irisgarritasunaren inguruan egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Mugikortasun bertikaleko elementu mekanikoak jartzea da hiriko toki askoren nahiz hiriak eman ditzakeen hainbat zerbitzu publikoren irisgarritasun arazoak konpontzeko hartu beharreko bidea. Halako lanak egin izan dira hiriko zenbait tokitan, baina neurriak hartu beharra dago beste leku batzuetan; izan ere, oso zaharrak direla eta, zenbait gune ez dira birgaitu, eta, beraz, ez dute halako elementurik.

Urriari izandako Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak), interpelazio bat aurkeztu genuen, hiriko aparkaleku publiko batzuek irisgarritasun gabeziak dituztela eta. Easoko, Artzain Onaren plazako eta Txofreko aparkalekuetan eskailerak baizik ez daude oinezkoak sartzeko, eta, aulkiaekin joanez gero, ibilgailuentzako bidetik sartu beharra dago, nahiz eta horrek arriskua dakarren. Hau da, pertsona guztiek ez dute instalazio publiko horiek erabiltzeko aukerarik.

Kasu honetan, eta batzordean emandako azalpenak entzun ondoren, lehentasunezkoztat jotzen dugu herritarren aldarrikapen bati erantzutea, gobernu honek jarritako helburu bat betetzeko, alegia, herritar guztiei ematea zerbitzu publiko guztietara iristeko modua.

Horregatik guztiagatik aurkezten dugu ondorengo

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari bila dezala hiriko aparkaleku publikoetan irisgarritasun unibertsala bermatzeko modua.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

irabazi
DONOSTIA

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.